



Elikadura jasangarriari buruzko jardunaldia: ikerketa beharrak elikadura berri baterako

Justifikazioa

Elikagaien ekoizpenaren eta kontsumoaren arloko jasangarritasuna gure gizarteak gainditu beharko duen erronketako bat da. Ingurumen eragin baxua sortuz elikagaiak ekoiztea, eraldatzea eta kontsumitzea ahalbidetuko duten eta,aldi berean, aipatuen ekoizpenean parte hartzen duten eragile guztien bideragarritasun ekonomikorik handiena, bai eta kontsumitzaileen ongizaterik handiena ere bermatuko duten formulak lortu beharra dago.

Geroz eta pertsona gehiago daude baldintza horiek betetzen dituzten elikagaiak eskatzen eta beren politikak jasangarriagoa den eredu baterantz bideratu dituzten geroz eta erakunde gehiago daude. Horien artean dago “Vitoria-Gasteizerako nekazaritzako elikagaien estrategia jasangarria” egin duen Vitoria-Gasteizko Udala; bai eta “Food cities” delakoen inguruko Milango Ituna sinatu duen Bilboko Udala ere. Eta elikagaiak ekoizteko beren prozesuetan eredu jasangarriagoak sartu dituzten geroz eta ekoizle gehiago daude ere. Esperientzia anitzak ditugu eskura egun: bat egitea eraldatze edo merkaturatze jarduerak gauzatzeko, kanal motzak erabiltzea produktuak merkaturatzeko edo ingurumen eragin gutxiagoko nekazal-praktikak aplikatzea. Horietako zenbaitek urteak daramatzate arrakasta handiz funtzionatzen, baina zientzia-ikerketaren babes behar dute hedatu ahal izateko. Elikagai-eredu berri horrek arazo berriak izango ditu aurrean eta, ondorioz, ikerketa-ildo berriak ireki beharko dira diziplina ezberdinetan.

Helburuak

- Elikadura jasangarriari loturiko egungo esperientziak jakinaraztea
- Elikadura jasangarriaren arloan dauden ikerketa beharrak eztabaidatzea eta zehaztea

Jardunaldiaren Egitura

- Goizeko lehen zatian, beren esperientzia azalduko dute sei hizlarik.
- Atsedena eta gero, ikusten dituen ikerketa beharrak azalduko ditu horietako bakoitzak. Bigarren zati honetan Eneek-eko ordezkari batek parte hartuko du ere. Aipatu beharrak bertaratutakoekin eztabaidatuko dira.

Hartzaileak

Erakunde publikoetako teknikariak, ikertzaileak, irakasleak eta nekazaritzako elikagaien inguruko ikerketan interesa duen pertsona orok.

Elikagaiak ekoizteko, eraldatzeko eta kontsumitzeko prozesuak ezagutza arlo ezberdinak ukitzen dituenek, ikerketa beharrak ondoko diziplinei lotuta egongo dira, besteak beste: agronomia, albaitaritza, osasuna, elikagaien teknologia, nutrizioa, geografia, ekonomia, soziologia, marketinga, zuzenbidea edo komunikazioa.

Egitaraua

9:00-9:15 Irekiera ekitaldia:

Bittor Oroz j., Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako Sailburuordea

Javier Garaizar j., Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako Campuseko Errektoreordea

Jose Ramon Mauleon j., Soziologia 2 Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea

9:15 – 11:00 Esperientziak aurkeztea

Helen Groome – “*Vista Alegre Baserría*”-ko bazkide. Honek, behi esnea eta esnekiak ekoizten ditu, kontsumitzaileei zuzenean saltzeko ondoren. Karrantza (Bizkaia)

Aitor Intxaurre – “*Laneko*” kooperatibako bazkide eta koordinatzailea. Kooperatibak barazki kontserbak, marmeladak, sagardoa, sagar zukua eta txakolina ekoizten ditu. Gizaburuaga (Bizkaia).

Eneko Egibar – “*Matadero Erralde*” proiektuan parte-hartzaile. Durango (Bizkaia)

Pedro Lizarralde – “*Fruta ekoizleen eta egileen Arabako Elkarte*” (ASSAE) delakoaren kide.

Itxaso Compañon – “*El Mozo Wines*” upeltegiko bazkide. Lantziego (Araba)

Marijo Imaz- Udalerriko jarduera agroekologikoa sustatzea xede duen “*Ekoizpen Urduña*” udal zerbitzuko burua. Urduña (Bizkaia)

11:00 – 11:30 Atsedena

11:30 - 13:30 Ikerketa beharren azalpena eta eztabaida.

Aurreko ez gain, “*Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua*” (Eneek) erakundeko teknikari **Sugoi Auzmendi**(e)k parte hartuko du ere.

13:45 – 14:15 Hautazko jarduera: BioAlai-ra bisitaldia.

Jardunaldia bukatuta, “*BioAlai Kontsumo Ekologikoaren Elkarte*”-k Vitoria-Gasteizko Txalaparta kaleko 21 zenbakian duen dendara joango gara (10 minutu oinez). Bertan, bisitaldi gidatua izango dugu. 1.100 familiak osatu duten elkarte bat da, Estatuko bigarren handiena.

Antolatzaileak

Ondokoak dira Jardunaldiaren antolatzaileak: Soziologia 2 Saila, Nekazal Ikasketarako Euskal Institutua eta Arabako Campuseko Errektoreordetza

Lekua eta data

Arabako Campuseko Lascaray Ikasgunea (Vitoria-Gasteiz), 2016ko azaroaren 23an.

Izen-emateak

Sarrera librea eta doakoa da, lekuak bete arte; ondorioz, izena eman beharra dago aldez aurretik.

Klik egin [hemen](#) izena emateko.